

EUSKAL ZAINITZA EREDU SENDO, ERALDATZAILE, FEMINISTA ETA KOMUNITARIO BATEN ALDEKO MOZIOA

Historian lehen aldiz, joan den urriaren 29an Zaintzaren eta Laguntzaren Nazioarteko Eguna ospatu zen, eta testuinguru horretan, ekimen asko antolatu dira Euskadin zaintza-eredu berri bat aldarrikatzeko. Osasun sistemaren eta euskal gizarte zerbitzuen kalitatea eta sendotasuna funtsezkoak izan dira Covid-19aren pandemiaren aurkako borrokan; eta, orain, itun sozial eta politiko berri bat adosteko garaia da, gure zaintza eredia lidergo eta erantzukizun publikoan oinarrituta eraldatzen jarraitzeko, sektorearekin, eragile nagusiekin eta inplikaturako gizarte erakundeekin lankidetzan.

Gaur egun, Gipuzkoan, lau pertsonatik batek (% 22,9) 65 urte edo gehiago ditu. Gipuzkoako biztanleriaren zahartzea da gaur egungo erronka nagusietako bat, eta hortik eratortzen da zahartze aktibo eta osasungarria sustatzeko beharra, baita estrategiak garatzeko ere, adineko pertsonak pairatzen dituzten mendekotasun eta bazterkeria egoeren gorakadaren aurrean.

Testuinguru horretan, elgetarrok eragile konprometituak izan behar dugu printzipio komunitarioetan oinarritutako balio-gizarte baterantz joateko, eta modu aktiboan parte hartu behar dugu zaintza-eredu erreferentzial bat eraldatzen eta martxan jartzen, zaintza eskubide unibertsala eta, pertsona, gizarte-ongizateko eredu berriaren ardatz nagusia izango dena.

Horregatik guztiagatik, Elgetako Udalak konpromisoa hartzen du Euskadiko zainketen aldeko itun sozial berriaren parte hartzeko, eta zainketa-sistema sendo, eraldatzaile, komunitario eta feminista defendatzeko. Horretarako, ardatz estrategiko hauek garatzeko konpromisoa hartzen dugu:

1. **Pertsona, zainketa-eredu berriaren ardatza.** Arreta pertsonalizatua, unibertsala eta kalitatezkoa izateko eskubide subjektiboa bermatzea.
2. **Zainketen profesionalizazioa.** Zaintza-modu formal eta informaletan diharduten langileen lan-baldintzak sendotzea eta hobetzea, elkarriketa sozialaren bidez eta laguntza-sistema indartuz.
3. **Etxeko zaintza lehenesten duen sistema.** Adineko hamar pertsonatik zortzik etxean bizitzen jarraitu nahi dute. Horregatik, etxeko zainketak hobetzea eta berrikuntza txertatzea beharrezkoa da, zaintza profesionalizatuz, familia-zaintzaileari lagunduz eta komunitatearen parte-hartzea indartuz.

4. **Sistema inklusiboa eta berdinzalea.** Zaintzaren ardura emakumeek izan dute historikoki eta, horregatik, beharrezkotzat jotzen dugu desberdintasun-egoera hori konpontzeko neurriak hartzea feminismo konprometitu eta berdinzale batetik, baita arraza edo jatorri etnikoarekin lotutako diskriminazioekin amaitzeko ere, lanerako segregazioa eta desberdintasun sozialak murriztuz.
5. **Koordinazio soziosanitarioa areagotzea.** Gizarte eta osasun sistemen arteko lankidetzeta handiagoa eta hobeia izan behar da, erabiltzaileek arreta integrala jasó dezaten euskal administrazioaren aldetik, mendekotasuna, dibertsitate funtzionala, gaixotasun mentalen bat edota gizarte bazterkeriako egoeraren bat izan.
6. **Komunitatea indartzea.** Giza garapen iraunkorrerako gune gisa komunitate-loturak indartzea, gizarte-kohesioa eta zaintzarekin konprometitutako erakunde, elkarte eta pertsonen parte-hartzea areagotuz.
7. **Zaintzen iraunkortasuna eta kalitatea bermatzea.** Eraginkorragoak izanda kudeaketa hobetzea, horretarako baliabide ekonomiko berriak aztertuz eta egungo zainketa-ereduaren bideragarritasuna eta etorkizuneko ongizatea bermatuko duten neurri fiskal berriak hartuz, belaunaldien arteko konpromiso berrituarekin.
8. **Zaintzen elkarlaneko gobernantza.** Zaintza publiko eta komunitarioko eredu bidezkoago, berdintasunezkoago eta erantzunkideago baten alde egiteak berekin dakar elkarlaneko gobernantzako mekanismo berriak antolatzea: publiko-pribatua, publiko-publikoa, publiko-komunitarioa.

Dagozkion ondorioetarako,



Iker Laka Barandika
Elgetako EAJ-PNV udal taldeko bozeramailea